

3/2019 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
APIRILAREN 9an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

MAHAIBURUA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*.

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*.

MAHAIKIDEAK:

Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea*.

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua*.

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.

Ángel Navallas Echarte jn., *Zangozako alkatea*.

Ezin etorria adierazi dute:

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea*.

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea*.

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*.

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemeretzi apirilaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- | | |
|------|---------------------------------------------------------|
| 1º.- | Aurreko bilkuraren akta onestea. |
| 2º.- | Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz. |
| 3º.- | 2018ko kontuak. |
| 4º.- | 2019ko kuotak. |
| 5º.- | Presidentearen informazioa. |
| 6º.- | Galde-eskeak. |

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharririk duen haren inguruan.

Bilkurara joandakoek

ERABAKI DUTE:

2019ko martxoaren 12an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Oihangintzako Aholku Kontseilua (2019/03/15).** Kontzeju horretako ordezkariak azaldu zuen Oihangintzako Aholku Kontseiluaren eraketa berraztertuko zela. Aurreikusi zuten elkarte tradizionalen ordezkariak murriztea eta NUKFren hiru ordezkariak mantentzea. Bukatzeko, elkarten eta NUKFren ordezkariak eskatu zitzaizkien proposamen bat egitea, zeina egin eta igorri baita: NUKFren ordezkariak mantentzea eta elkartenak hirura murriztea, eremuen arabera, baina boto bana emanez ordezkatzeko duten entitate bakoitzeko.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua (2019/03/25).** Urteko kontuak aurkeztu ziren, eta proposatu 2018ko emaitzak aplikatzea eta 2019ko kontuak aurreikustea.
- **EUPFren Lurralde Kontseilua (2019/03/26).** Jakinarazi zen errege dekretu bat onetsiko zela 2018ko superabita inbertitzeko.
- **Kontratazioaren Batzordea (2019/04/01).** Zenbait aldaketa egin dira Kontratazioaren Atarian.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua (2019/04/01).** Mehatxupeko espezieen foru dekretuaren proiektua aurkeztu zen.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2019/04/03)**
 - Foru Dekretuaren proiektua Nafarroako Planeamenduaren Erregelamendua arautzeko.
 - Kontratu Publikoen Auzitegiko kideak izendatzeko proposamena.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (2019/04/03).** "Proeducar - Navarra" programa berria aurkeztu zen ikastetxe guztietarako.
- **Memoria Historikoaren arloan Koordinatzeko Batzorde Teknikoa (2019/04/04).** Memoria Historikoaren lehenengo sei lekuak deklaratu ziren.

- **Iruzuraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordea (2019/04/08).** Urteko balantzea aurkeztu zen, baita 2019rako zergen kontrolerako neurriak ere. Iruzuraren kontrako neurrien artean, NUKFren eta Nafarroako Ogasunen artean sinatutako hitzarmena sartzen da.
- **Kultura arloan Koordinatzeko Foroa (2019/04/09).** Aurkezpen bat egin da kultura arloan toki entitateentzat egin diren deialdi guztiei buruz. Eztabaidatu da komeni ote den berariazko zerbait eranstea toki entitateentzat, halako entitateekin egiten den lan talde batetik proposatu zen bezala. Aztertuko dute. Orobat, jakinarazi da zein den liburutegien egoera eta zer aurrerapen eta helburu dagoen betetzeko.

ERABAKI DUTE:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. 2018ko kontuak.

Presidenteak proposatu du kontuak onestea, Batzarraren onespenera jartzeko. Azaldu du ezen aurten, udal hauteskundeak direla eta, kontuak ezin izanen direla ekaineko batzar berezian onetsi, aurreko urteetan bezala, eta, hortaz, abenduko batzar arruntean jarriko direla batzarraren onespenera.

Alor Ekonomikoaren arduradun den Cabasés jaunak azaldu ditu kontuak, batez ere aurrekontuan ezarritakoaren aldean gauzaper handiena eta txikiena dutenak.

Batzorde Betezararen kidearen onespenera jarrita, Garbayo andreak, Moriones jaunak eta Fabok jaunak abestentziora jo dute euskara teknikari-itzultzailearen kontratazioari dagozkion gastuengatik.

Gainerako kideak alde agertu dira, eta, hortaz,

ERABAKI DUTE:

Kontuak onestea Batzarrak onetsi dezan proposatu den moduan.

4. PUNTUA. 2019ko kuotak.

Proposatu da NUKFren kuotak onestea 2019ko ekitaldirako, egun indarra dutenak dauden-daudenean utziz. Hona hemen:

2019rako PROPOSATUTAKO KUOTA				
			2019ko KUOTA	% ALDAKETA 2019/2018
UDAL BAKUNAK			0,3428	%0
UDAL KONPOSATUAK			0,1089	%0
KONTZEJUAK			0,2999	%0
BESTELAKO ENTITATEAK			0,0822	%0
GUTXIENEN KUOTA			40,00	%0
AURREKONTUAREN % (POP. GABE)			0,045%	%0

ERABAKI DUTE:

NUKFren kuotak onestea proposatu den bezala.

5. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Prestakuntza planaz. Jakinarazi du planaren zuzkidura iazkoa adinako izanen dela, hau da, 156.000 eurokoa. Planaren deialdia aurreratu da, apirilaren 18a baino lehenago aurkeztuko baita; beraz, prestakuntza ekintza batzuk aurreratzen ahalko dira.
- Zehapen espedienteek ukitutako hauteskunde elkarteen ekitaldiaz eta prentsaurrekoaz. Adierazpen bat argitaratu zen, udalerrri guztietara igorriko dena, babesa eman diezaioten.
- NUKFren Plan Estrategikoaz. Jakinarazi da bilkura bat egin zela apirilaren 3an, eta beste bat dagoela aurreikusita hilaren 23rako. Diagnostikoaren lehendabiziko fasean ari dira lanean, non zehaztuko baita zer lani eta ildori ekin behar zaion hurrengo faseetan.
- Ogasunak eta NUKFk sinatu duten hitzarmenaz, zeinak helburu baitu informazioa trukatea eta lankidetzan aritzea zergen kudeaketan eta ikuskapenean. Horren hedapena egiteko, adierazi da zirkular bat igorriko dela udal guztietara.
- Idazkariak aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrenda bat eratzeko hautapoben deialdiaz.
- Argazkilariekin egindako bileraz, non helarazi baitziguten zer arazo duten aparkatzeko udalerrri batzuetan prentsaurrekoetan eta abarretan. Proposatu zuten txartel bat izatea, udal guztietarako balioko duena.
- Nafarroako Ehiza Federazioko buruarekin eginiko bileraz. Animaliak Babesteko Foru Legeaz aritu ziren, hudoiek mikrotxipa eramateko betebeharrak, ehiztarien federatzeko betebeharrak, eta abarrez. Manifesturen bat sustatu nahi dute ehizaren alde.

- Eskola mapa aldatzen duen foru dekretuaz, zeinari txostena eginen baitzaio Toki Araubideko Foru Batzordearen hurrengo bilkuran. Jakinarazi da oraindik ere alegazioak onartzen direla dakarren zonifikaziorako.
- Asbestosa Kentzeko Planaren aurkezpenaz. Gobernuak onetsi eta Parlamentura igorri du. Toki entitateen lankidetzak dakar, batez ere lizentziak eta baimena emateko orduan.
- Heldu den apirilaren 16an 0-3 urteen taldearekin egin gogo den bilkuraz. Hezkuntza Departamentuak bere proposama aurkeztuko du ziklo horren inguruan.
- Iruña Ciudad de Acogida elkarteak igorritako adierazpenaz, zeina hedatu nahi baitu udal guztietara bere kanpainarekin bat egiteko. Ondorio horietarako, postak helaraziko dizkiegu.
- Egindakoaz Poliziei buruzko Foru Legeak aipatzen duen polizia lanpostuen balorazio azterlana enkargatzeko, toki entitateek finka dezaten lanpostu horien lanpostu osagarriaren portzentajea.

Bi proposamen aztertzen ari dira.

Halaber jakinarazi da kontsulta bat igorri zaiola Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzari, ordainsariaren araubide berriaren aplikazioa dela eta.

ERABAKI DA

Horretaz jabetzea.

6. PUNTUA.- Galde-eskeak

Garbayo andreak jakinarazi du aldeko epaia lortu duela aparteko orduen prezioa dela eta, eta eskatu du hedatu behar dela, beste entitate batzuk ukitzen dituelako gai horrek.

Presidenteak proposatu du Batzorde Betearazlearen hurrengo bilkuraren data aldatzea, zeren, dagokion egunean, maiatzaren 14an alegia, hauteskunde kanpainan baikaude. Planteatu da Lodosan egitea eta, ondoren, han bazkaltzea, legegintzaldiko azken bilkura izanen baita.

Gaia aztertutakoan, ontzat jo da maiatzaren 14ko datari eustea, baina 12:30ean egitea, Lodosan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.